

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Urriak 13, 80. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**HOTZ - BERO**

**zibro**  
**KAMIN TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE



# ONGI ETORRI ARRASATERA!



CANAL+



**A**rrasate Telebistak ongi etorrikeri beroena ematen die Mondragoeko etxeetan laster ikusi ahal izango diren telebista pribatuei eta aurrerantzean satelitez edo bestela etorrikeri direnei. ATBn ez dugu monopolioetan sinesten eta nazioartetik hizkuntza desberdinetan ailegatuko zaigun eskaintza oparoa begi onez ikusten dugu.

Baina Arrasatek bere telebista behar du, mondragoetarrak ondo jantzita egon daitezzen herriko gorabeheraz. Gainontzeko telebistek, ikaragarri aberatsak izan arren, ezingo dute behar hori bete.

Horretarako gaude gu, Arrasate Telebista, zuek hurbilen, egunegun, zu zeu zeure herriko berrien protagonista egiten zaituena.

Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa duzu Arrasate Telebista, zeure herriko telebista. Badakizu non gauden: 22. kanalean.



ARRASATE TELEBISTA

# Zugandik hurbilena



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Eraztun honen bidez...

**H**iri haundi edota turistikoetako hoteletatik gura baino sarrigo ibili behar dugunok, bikote ezkonberri asko ikusteko aukera izaten dugu. Ez diezu galdetu behar: euren keinuetan nabaritzen zaie estreinatu berri duten egoera. Ahaleginak egin arren berehala igertzen zaizkie, bikaria ala epaitegian arestian sinaturiko hitzarmenaren arrastoak. Horietako batek guztiz salatzen ditu: eraztun distiragarriak.

Hoteleko nire logelaren mahian lerro hauek idazten ari naizelarik ezin diut ahaztu arrasatear jator harek lagunene taldeari magia saio batetan -gutxienez orain dela hogetabost urte- esan ziguna: "era askotako magia egiteko gauza nauzue baina harrigarriena eraztun honen bidez lortu dut: ipini aurretik bakarrik bizi nintzen; ipini ondoren, berriz, andrea eta sei ume azaldu ziren etxera bata bestearen atzetik". Ezker eskuan zeraman ezkontz-eraztunari buruz ari zen gure mago txantxazalea.

Munduko kultura guztietan agertzen da eraztunaren sinboloa, ezkontza promesa eta zorionaren ikur bezala. Hala ere, ez dirudi mendetan zehar hura ezartzeko tokia berdina izan denik. Batzuek diotenez, leizeetako gizonak bere gustoko emakumearen eskumutur eta txorkatilak lotzen zituen, belarrez

egindako uztai apalaren bitartez. Artean gizonari urre eta zilarra ezezagunak zitzaizkiola, zeukan apurraz konformatu behar bihotzaren zirrara erogarria bere maite kuttunari erakusteko. Dena den, badaude beste batzu ere, eraztunak gizonaren emakumearekiko jabetza adierazten zuela diotenak. Ez dakit; agian, eraztunak elkarri eskaintzen hasi zenean demokratikoago bilakatu ziren ezkontzak.

Belarrari boliak, anbarak eta harkaitzezko lehiarrak jarraitu zioten. Erromatarren garain nurruko estalkiak erabiltzen ziren, hautatuta izandako nesken hatzetan ipintzen zirelarik. Urrea, zilarra, urregorria eta zura zituzten egipziarrek lehengai euren eraztunak egiteko. Eta dirudienez, Egiptoko matematikariak izan ziren zirkulua betierekotasunaren sinbolotzat onartu zutenak. Papiroetan deszifra omen daitekeenez, emakumearen maitasuna eternitatearen orbitatik joatea itxaroten zuten Nilo ondoko biztanleek.

Afalorduan aldamenen izan ditudan ezkonberriek mitologiaren izkutueta sinesten ote duten ala ez jakin barik geratu naiz. Edozein modutan, euren begi bizieta hasiera eta amaierarik gabeko indarra nabari zitekeen. Beharbada, horixe zen faraoiek betierekotasunaren zerutiar zeinutzat zeukatena. Auskalo!

*Jose Mari Velez de Mendizabal*

**UGARAN**  
jatetxea

Garagatza eruzoa - 1/787854 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzarak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**KAJOI TABERNA**

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27



**HAURTUOA**  
ARRASBURU

Arrasate Pasealekua, 4  
79 14 90 ARRASATE

**PEÑACOBIA**  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

ARRASATE

**Montréaletik**

Kaixo! Zer moduz?  
Mila esker Arrasate Press astekaria bidaltzeagatik. Pozgarria izaten da horko berriak jasotzea.

Injinerutzako ikasketak egiten ari naiz Montrealeko Eskola Politeknikoan eta oraindik denbora alditxo bat pasatu beharko dut hemen.

Arrasate Press jasotzeak euskaraz irakurtzeko aukera ematen dit astero. Bestela, euskaraz idatzi edo mintzatu ezin dut, euskaldunik ez bait dut ezagutzen.

Dena dela, euskal arrantzaleek pasatu ziren lekuetan izen bereziak topatu izan ditut. Adibidez, Québec'eko txoko batek "Les Basques" izena du.

Besterik gabe, berriro ere agurtzen zaituztet.

*Xabier Retegi*

**Salomonkeriak**

Duela egun batzu, Madrilan izan nintzen beste berrogei bat herkiderekin batera, Iñaki Iturri, Atxabaltar bihurturiko Arrasatearraren epaiketa ikusten.

Defentsa-abokatuak absolbazioa eskatu zuen, Iñakik, leporatutako kargu guztiak ukatzen zituelako, eta aurrez eginiko aitortpena torturapean lortu zelako.

Fiskal Ministraritzak zazpi urteko zigorra eskatzen zuen, Iñakik aurrez eginiko deklarazioan oinarrituz.

Akusazio partikularrak bestalde, kristonak eta bi esan ondoren, hamar urte eta 500.000 pezetako zigorra eskatu zuen.

Epailleek, guztiak entzun ondoren, badirudi euren aintzinako maixuarena imitatu nahi izan dutela erdiko aukera aplikatzerakoan, baina hark, hartutako erabakiaz justizia lortu bazuen, hauek, zeharo urruti ibili dira, familia baten hondamena baino ez bait dute lortu.

Zoritxarrez Madrilera joan aurretik zabalduriko zurrumurrua, non, halako kasuetan erabakia alde aurretik hartuta zegoela esaten zen, egia bihurtu zaigu.

*Aitor Irure*

**Parrokian gertatutakoaz**

Joan den igandeko meza nagusiko gertaera baten berri ematera natorkizue. Ni neu ez nintzen han izan, baina kontatu didatenez, istiluren bat egon omen zen bertan.

Kontua zera da, meza beti bezala hasi omen zen; hau da, euskara hutsean, eta itxura denez hala jarraitu zuen "Gure Aita" kantatzeko unea iritsi zenerarte.

Orduan parrokoak "Gure Aita" gaztelaniaz kantatu behar zutela esan zien bertaratu, kanta horrek berrikuntza batzuk izan dituela eta, gaztelaniaz ikastea komenigarria zela adieraziz.

Jendea ixilik geratu zen. Halako batean, bertako batek eskua altxa eta euskararen alde atera zen, euskaldunok meza nagusia euskara hutsean entzuteko eskubidea dugula esanez.

Parrokoa eta lagun horren artean tirabira batzuk izan baziren ere, ez zuten adostasun batera iristerik lortu.


Azkenean lagun horrek "Gure Aita" gaztelaniaz kantatzekotan berak alde egingo zuela esan zuen.

Eta gertatu ere hala gertatu zen, kanporako bidea hartu behar izan bait zuen, "Padre Nuestro" elizaren jabe egiten zen bitartean.

Guztien aurrean euskaraz bizitzeko ausardia azaldu duzulako nire eskerrik beroena luzatzen dizut.


Zorionak zuri eta bejondeizula "Gure Aita" defendatzeagatik, zu bezalakoei esker iraungo bait du zutik "Gure aitaren etxeak".

*E.M.*





# Sindikatuena lana beharrezkoa al da?



**Juan Miguel Vitoria**  
(langilea)

Bai, uste dut beharrezkoak direla jendeak bere arazoak bideratu ditzan eta konpontzeko zerbait egin ahal izan dezan.




**Mireia Muruamendiaraz**  
(ikaslea)

Beharrezkoak izango dira baina ez dakit, ez dakit zer esan.



**Mertxe Juldain**  
(dendaria)

Nik uste dut baietz, langileentzat eta beharrezkoak direla baina ni ez nago inon sartuta.




**Mikel Galarraga**  
(saltzailea)

Uste dut baietz, langileen arazoak zuzentzeko balio dutela.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

# Memesa

## 79 42 22

# KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

# ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

# Zararaoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

# ALTUNA

Lurrindegia,  
bisutegia  
drogeria

Maalako Errebala  
Tfnoa: 79 14 23



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua.....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak.....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALTAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZAK

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILEAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea.....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua).....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero).....	79 05 81
Gasa.....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza.....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza.....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak.....	79 87 77



## 12 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Johnny el guapo", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Don Juan, mi querido fantasma", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Mendiko Ganadu feria Elosuan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

## 13 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Dick Tracy", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Comienza la caza", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Arratsaldeko 6etan umeentzako antzerkia, "Lam eta Lorea" obra Taun-Taunen eskutik, herriko plazan.
- Goitibehera jeitsiera Oñatin
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

## Kirol Agenda

### FUTBITOIA

• • •

- Zaldibarko txapelketaren barne beste 30 partidu jokatu dira ostiraletik igandera bitartean Zaldibarko frontoian, Musakolako kiroldegian, eta Santa Teresa ikastetxean.

### MENDIA

• • •

- Besaide mendizale elkarteak antolatutik ostiraletik iganderarteko mendi irteera Iratira.

## 14 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Dick Tracy", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Comienza la caza", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Oñatin bi lehiaketa, bata perretxikuena eta bestea margolariena, jaie bukaera emanaz.
- Goardiako farmazia: Torres, Portaloia.

## 15 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Dick Tracy", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Comienza la caza", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 16 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Dick Tracy", 7 eta 9.30etan.

- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

## 17 ASTEAZKENA

• • •

- "Gizakia eta inguru ekologikoa" izenburua daraman erakusketaren inaugurazioa Monterronen.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 18 OSTEGUNA

• • •

- Hitzaldia: "Ariketa fisikoa eta emakumea". Arratsaldeko 3etan AEDn, Sabin Padillaren eskutik.
- Bideo emanaldia: *Autobia: zein da proiekturik onena?* Arratsaldeko 7etan AED elkarteak.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santamaina.

### SASKI-BALOIA

• • •

- Larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera Musakolako kiroldegian **Centraljet Euskal Air** eta **Loiola** 91 taldeen arteko partidoa.

### MOUNTAIN BIKE

• • •

- Oñatiko txantxiku pedalada elkarteak eta jai batzordeak antolatutik **mountain-bike ibilbidea** ostiral goizean 9.30etatik aurrera. Irteera Zubikoa kiroldegian.




## LIBURUAK

### • Euskaldunaren hizkuntz eskubideak

EKB-k "Euskaldunaren hizkuntz eskubideen gidaliburua" kaleratu du, euskararen auzian agertzen diren bi planoei begirada ematen zaiolarik bertan: legal eta sozialari. EKB-koek liburua idazteko orduan legearen plano sakondu dute gehienbat, pentsatuz idatzita dagoenaren irakurketan, hau da bere aplikazio eta errealtasunari dagokionean, plano soziala kontutan eduki nahi izan dutela.

EKB-ren liburuak bizitza uko zenbait arloetan euskaraz mintzatu nahi izateak aurki dituzaken eragozpenak gainditzeko eskubideen berri ematen du, nolabait euskarak duen hutsunea betetzen saiatzen delarik.



## AEDkoak

• AED elkarteak bi lehiaketa antolatu ditu, bietan lanak emateko epea Azaroaren 1a delarik: alde batetik itzulpen laburren sariketa, "Ekialdeko Europaren aldaketa" gaiari buruz; eta bestea "Arrasate 90" lehiaketak. Bigarren lehiaketa honetan ipuina, poesia, bertso paperak, bideoa, komikia, eta argazkia lan daitezke. Beraz ez dago aspertzetik.



eta lorea

## TXOTXONGILOA

### LAM eta lorea

Bergarako Taun-Taun txotxongilo taldeak larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera "Lam eta lorea" lanaren antzezpena egingo du, Arrasateko enparantzan.

Taun-Taun taldearen lehen ikuskizuna, "izuikara haripean" izenekoa, 1988ko maiatzean estrenatu zen eta, arrakasta lortu ondoren, makina bat lekutan antzeztu dute hango eta hemengo umeen gozagarri. Handik urte batera 1989ko abenduan bigarren lana estreinatu zuten, "Lam eta lorea". Txotxongilo lan horri esker Tolosako eta Bilboko nazioarteko jaialdietan parte hartu zuen Taun-Taun taldeak.

Larunbateko antzezpenean fikziozko lurralde baten gertatzen den istorio bat kontatzen zaigu, Danam lurraldekoa. Lurralde horren etorkizuna profezian datza. Profetia horri itenbide bat emateko sortarazten da Lam-ek aurkitu behar duen lorea.

## LEHIAKETAK

### • Arizmendiarieta

Gizabidea fundazioak, Jose Maria Arizmendiarieta zenaren oroipena suspertu nahian, Deba Garaiko gazteei "Jose Maria Arizmendiarieta V. Lehiaketa"-rako dei egiten die. Lehiaketa honetan, Deba Garaiko edozein ikastetxetan matrikulaturiko ikasleek parte hartu dezakete, bakarka nahiz taldeka.

Lehiaketaren gaia egungo gizartearen diruarekiko menpekotasuna izango da. Lanak bidaltzeko epea 1990ko Aza-

roaren 6an amaituko da, eta helbide honetara zuzendu behar dira: Gizabidea fundazioa. 23 postakutxa, 20500, Arrasate.



## EUSKARA

Urriaren 14an Lizarran ospatuko den Nafarroa Oinezarako autobusak antolatu ditu AEDk. Irteera goizeko 9etan izango da Garibai Plazatik. Izena eman nahi duenak AEDn bertan, Hire liburudendan eta Iturriotz tabernan egin behar du, urriak 12 arratsaldeko 6ak aurretik eta bidaiaren prezioa 600 pezetakoa izango da.



## ERAKUSKETAK

### • Gizakia eta inguru ekologikoa

Kultur Bideetan kanpainaren barne, "Gizakia eta ingurugiro ekologikoa" izenburua daraman erakusketa irekiko da Monterroneko kultur etxean. Erakusketa Ametz taldekoek egindakoa da, "gazteengan ingurugiroarekiko ardura sortu asmoz".

Gaiaren artean korostiaren eskasia, pinuek ingurugiroan duten eragina, kattagorri edo pottokak bizitzeko dituzten arazoak.

## ARTEA

Igandean II. Arte Hamabostaldian egindako lanen erakusketa irekiko da, Udaletxeak erosiko dituen lanena hain zuzen. Erakusketa hau arte hamabostaldian zehar tailer izan direnetan prestatu da eta zazpi egunez egongo da ikusgai.



“.....  
Zer eragin izan du PNV eta PSOeren arteko koalizioak Arrasateko batzokia eta herriko etxeko jendeen artean hurbilketa soziologikoa eman zedin? Ezer ere ez. Koalizio honek ez du hurbilketa sozialik ekarri. (...) Ferixalekuko istiluak eragin zituzten berberak dira Gasteizen gobernatzen egon direnak”.

(Xabier Gurrutxaga EEren zerrendaburuak Arrasateko Ezkertokian)


“.....  
Alkartetxe baten zabalkunde edo inaugurazioa Arrasate'n zala-ta, erri jator artan izan ginan agorraren 29an (...). Arrasateko Eusko Alkartasunekoak ez dira edozein, alako etxea zabaltzera iritsi diranerako. Ez orixe!”

(Txomin Garmendiak DV egunkarian)

“.....  
Arrasate Musikal izeneko Orkestra Sinfonikoak entzunaldi bat eskainiko du astearte honetan, urriak 2, Erromoko San Jose eleizan (...) Arrasate Musikal Orkestra 1974. urtean eratu zen, Arrasate Musikal Eskolako ikaslez osaturik. Juan Arzamendi Enparanza Eskola horretako zuzendariak fundatu zuen eta bere lehen kontzertua 1976 urtean eman zuen. Aipatu ere Juan Arzamendi bera dela Orkestaren zuzendaria. Orkestrak arrakasta handia lortu du, bai Euskal Herrian emandako kontzertuetan eta baita estatuan zein atzerrian emandakoetan”.

(Getxoberri aldizkarian)

**Aurrerapausorik eman da enpresetan segurtasun eta higie arloan?**



1993. urtean Europako Ekonomi Elkartean sartzearekin Elkartean segurtasun eta higie arloan dituen arau guztiak hemen ere ezarriko dira.

Nire ustez, segurtasun eta higie arloan ezer gutxi aurreratu da, mintegi eta antzerako gauza asko egiten diren arren. Egunerokotasunak ondo erakusten du istripu arriskua eta higie baldintzak ez direla gehiegi hobetu.

Zentzu horretan esango nuke Euskadin, kasu batzuk ezik, lan baldintzei buruz eta osasunean baldintza horiek duten eraginari buruz, ez dela ikerketa seriorik egin. Behar bada geure buruari mesede egitea izango da, baina uste dut kooperatibek egin dutela aurrerapenik bide horretan; erakunde ofizialak baino gehiago behintzat bai.

Esandakoaren lekuko gisa, euskal elkarte autonomoan dauden 600.000 langileetatik %25ak bakarrik du beteta lantegietan sendagile zerbitzua. Portzentai hori asko jaisten da zerbitzuaren kalitateari begiraturaz gero, lantegi askok medikua legeak agintzen duelako bait daukate.

Egun segurtasun eta higie arloak duen beste arazo bat zatiketarena da. Hau da: alde batetik sanitate kontseilaritzaren menpe dago, eta bestaldetik lan kontseilaritzaren menpe. Bi erakundeen arteko lotura eza begibistan dago.

Aipatutako lotura ezak ondorio zuzenak dauzka segurtasun eta higie arloan. Irtenbideak ikertzean eta inbertsioetan daude

*Eukeni Olabarrieta,  
Medikua*

**AUSTIN ROVER**



**AUTO SAN ANDRES**



**IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA**

**Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE**



## Oñati

Ez da jadanik gauza gehiegi gelditzen Oñatiko-jaien egitarauaren barruan, baina bada oraindik zertxobait asteburo honetarako jai batzordeak prestatua.

Kirolaz emango zaio hasiera ostiraleko egitarauri, ohizko bihurtzen ari den Mountain-Bike ibilaldia egingo bait da bihar. Ibilbidea burutzen dutenean giro ezin hobean, eta mila pezetagatik, hala nahi dutenek elkarrekin bazkalduko dute Zubikoa kiroldegian non dutxa zerbitzua dagoen.

Kirola den edo ez jakiteko badago ere larunbat goizerako goitibehera lasterketa prestatu da, Larrain elkartetik Txaketua pareraino egingo dena. Ikuskizun polita suerta daiteke goitibeherena, batez ere lurra bustita egonik.

Igandean emango da jai batzordearen egitaraua bukatutzat, igande goizean hain zuzen. Bonsai erakusketak, perretxiku lehiaketak, eta margo lehiaketak dira egun honetarako prestatutako ekintzak.



## Elosu

Ohi denez, Pilarika eguneko mendiko ganadu feria burutuko da bihar Elosuan, goizeko 9etan hasi eta egun guztian zehar makina bat ekintza burutuko dira. Festa giroa ere ziurtaturik dago Elosua aldean eta horretan nabarmenduko direnak Laja eta Landakanda trikitilariak izango dira.

Behi, behor, zaldi, ardi, asto, mando, txerri,...eta ohizko diren abere multzo interesgarria ikusteko aukera ederra izango da Elosukoa. Esandakoaz gain, artisau lanak ere egongo dira ikusgai, makina bat dendatxo edozein traste saltzeko prest, baserriko tresneria zahar eta berrienak nork erosi zai, eta jaki goxoak prezio onean ahora eramateko parada.

Dena dela, urtero gertatzen den legez eguraldiak laguntzea ezinbestekoa izango da, bestela Elosu ez bait da oso paraje egokia euripean eta hotzez egoteko.

## Aretxabaleta

Aretxabaletako Udala herriko droga arazoari irtenbideren bat bilatu nahian, eta arazoa benetan zertan den ezagutzeko, inkesta bat egiten ari da herriko gazteen artean. 15 eta 26 urtera bitarteko gazte guztiei etxera bidali zaié inkesta, guztira 1.278 gazteri. Drogarekin harremanik izan duten eta gai horri buruzko euren esperientzia ezagutzeko. Inkestak korreoz bidali behar dira, eta dagoeneko hasia da Udaletxeko arduraduna erantzunak jasotzen. Hortik aurrera hasiko da, egoera ezagutu eta gero, zer ekintza egin daitezken aztertzen.



## I. Laborra Erdozain

### ANALISI KLINIKOAK

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE



### ETXE-AUNDI

Dastapen-menua  
urriaren 19rako

- \* Itsaskien entsalada belar finekin
- \* Ahate ragout-a letxua hostotan.
- \* Legatza piperrada gainean.
- \* Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI



□ Mambo Nº 1

Irailaren 22an izan zen Moda Jaialdiaren ondoren, erakusketa bat antolatu du Mambo Nº 1 taldeak. Urriaren 11, 12, 13 eta 14an izango da erakusketa irekita, arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean Abaroako egoitzako bideo gelan. Maritxu Kajoiko trajeen erakusketa izango da ikusgai, iraileko desfilearen argazki eta bideo erreportaiarekin batera..

□ Hirugarren adina

Hirugarren adinekoentzako animazio ekintzen barruan, Helduen Heziketa Iraunkorerrako zentruak talde batzuk eratu asmo ditu jubilatuta eta pentsiodunentzat. Ikastaro horien barruan, alfabetatzea sartzen da alde batetik, idazten eta irakurtzen ikastea, eta baita ikasketak zabaltzeko aukera ere. Horrela, eskola graduatua atera nahiz euskara ikasteko modua izango duten guztiak. Horretarako izenematea egin behar da, Zaharren Egoitza bakoitzeko zuzendaritzan, zenbateko taldeak osa daitezken ikusi eta irakasleago eskatzeko.


□ Elbarrientzat oztopo

Arrasateko Udala, eta herriko hainbat kaletan egiten ari diren obrak aprobetxatuz, elbarrientzat oztopo diren espaloiak aldatzen ari da San Andres auzoan. Espaloiari zati bat kendu eta errepedearen kota berean uztea da asmoa, elbarriek oztopo gutxiago izan dezaten. Lan hori, Udalak beti izan duen asmoen artean sartzen da, eta lehengo urratsa moduan, elbarriak non dauden eta nondik ibiltzen diren kontutan izanda hastea erabaki da, nahiz eta aurrerantzean herriko beste auzo batzuetara ere hedatu nahi da eraikuntzako mugak kentzeko programa, obrak aprobetxatuz.

# Txandaka

## AMANDREA ETA KARRAMARROAK

**G**ure amona zenak Gaskotan esaten zuten bere kezka linguistikorik handiena -ez zuen halaxe esaten- guk erderaz ondo ikastea zela. Amandrea hamasei urterekin joan zen Madrilera zerbitzera, artean erdalduntzearen lehen urratsa ere aprobatzeko gauza ez zela. Ez dago noski esperientziarik norberarena baizik, eta bere sufrimenturik guk ez pasatzea zen haren kuidoak. Bere eskarmentu jatorrez gain, besterik ere bazekien gure amandreak: Madrilan ezezik, hemen bertan ere erdara nagusi zela (nagusi hitzaren zentzu guztietan), eta gauzak ez zuela batere aldatzeko itxurarik. Hala tokatzen zitzaion, eta horixe zen, beraz (ez ahal dit halakorik dagoen lekutik entzungo), amandreaken hizkuntz ideologia.



Juan Garzia Garmendia (\*)

Tira -besteak beste, berari esker, euskaraz ari gara gaur haren ilobok. Giroa ere aldatuko zen noski, eta egoskor samar jaio ginela ere egia da, baina neurri handi batean, haren euskaratik edaterik izan genuelako gara gu garenak, haren asmoak gorabehera.

Kontrako kasu ugari ere ezagutu dut, euskara estimaziorik handienean eduki baina -hau ere zentzu

guztietan- saltzeko bazarrik izan duen jendearena, gure hizkuntza (zaharra, ederra, kuttuna, garbia, nazionala...) alde edo moldez, onean onean zein gogor eginez, zaplastekoz nahiz ikastolaz, bere ondorengoen bizkar utzi nahi izan dutenena. Horretaz aspaldikoa dugu alegia

egokia: beren umeei aurrerantz ibiltzen irakasten saiatu ziren karramarroena. Beren zaharragoei ikusten zieten egiten zuten umeek, jakina, eta ez haiek esaten zieten.

Eta ez naiz bestela ibiltzeko gauza ez ziren karramarro-gurasoez ari, baizik eta borondate faltaz (ebitatuko dizuet aitzakien zerrenda) umeei eskatzen zieten beraiek betetzeko kapaz ez zirenez. Nahikunde eta nahia obretan bereizten baitira, Villasantek esango lukeenez.

Izan ere, gure amandreaken amandreaken garaian ez bezala, borondate kontua baita aspalditxodanik euskaraz egitea (horretaz lasai egon liteke gure amandrea), eta edo zeuk egiten duzu -aukera eta berba-, edota, ez legeek ez plangintzek, ez eskolek ez kanpainenek, ez dute zure orde hitzegingo. Ezta zure umeek ere.

(\*) Idazlea

# KiDE


## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA**<sup>-k</sup>  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE





Zazpi ikastaro ezberdin bailarako ikastetxeetan

## Goi mailako lanbide heziketa

### Hezibideko zentruetan unibertsitate mailako ikastaroak

Hezibide Heziketa Elkarreak heziketa profesionaleko ikastaroak antolatu ditu 90-91 ikasturterako. Ikasketa horiek Unibertsitatean sarbidea izateko prestakuntza jaso duten ikasleei zuzendurik daude, eta Goi Batxilergo-koek izango dute lehentasuna eta baita arlo profesional jakin batetan espezialdu nahi duten unibertsitateko tituludunek ere.

Ikastaro hauek antolatzea, goi mailako ikasketei orientabide berria eman beharraren aurrean etorri da, hainbat arlo profesionaletan behar ziren espezialistentzat prestakuntza berezia bideratu asmoz. Kontutan izan behar da hainbat karrerak gaur egun ez diola gazteari lanerako aukerarik eskaintzen. Ikasketa guzti horiek, Europa iadanik oso generalizatu eta ezarrita dagoen heziketa sistema batekiko homologa-

zioaz emango dira.

Orainartekoan ikasketa hauek izan duten harrera ona aipagarria da, eta Heziketa Sailak Hezibideko zentru ezberdinetan zenbait modulu ematea onartu du. Honakook dira ikastetxez ikastetxe emango direnak eta ikasle kopurua:

ALMEN ikastola, Ekintza Sozio-Kulturala: 32 ikasle.

Eskola Politeknikoan, Sistema Automatiko eta Programagarriak: 24 ikasle eta Fabrikazio Mekanikoa: 21 ikasle.

ETEOn Gestio Programatzailea: 26 ikasle.

Aretxabaletako Leniz Lanbide Eskolan Ekipo Informatikoak: 21 ikasle.

San Viator Ikastolan Ingurugiro Osasuna: 37 ikasle.

## Usteak uste

A trebentzia ez bada, idaziera goaz, Maritxu Kajoik gorputzetan utzitako ajea pasatze aldera. Eguraldia dela eta kexatu ginen igandean Kilometroan izan ginenok. Beti esaten da halakoetarako ez dela irioiz ere euririk aurrikusten, eta 'euria egitera zirkuito horretan zer gertatuko ote zen' galdetu ere bai, urte baten baino gehiagotan. Aurten iritsi da, ordea, horri buruz hitzegin beharra, tamalez euriak festa ilundu zuelako. Ez dakigu monjen errezorik ez zen enkargatu, ala hamar urtetan euririk gabeko nahiko Kilometro izan delako gertatu den. Kontua da ez zela uste adina jende bildi, ehundik berrogeira badago aldea, eta joandakoak euripean eta lokatzartean ibili behar. Lastima. Ez al da halakorik gertatuko datorren igandean Nafarroa aldean.

Aste honetan, bestalde, ez dugu Liburu Azokarik izango Arrasaten. Dirua omen da horren arrazoia, Liburuaren Etxeak eskaütako kopurua emateko prest ez dagoelako Udala. Errua norbaiti leporatu zale direnek, beti aurkituko dute trapu zikinen bat batari edo besteari egozteko, baina ez da hori ere. Ekintza politikak zeuden azokaren inguruan aurtengorako pentsatuak, eta besterik gabe liburuak eskuartearen izan nahi zituenak ere ez du modurik izango.

Sail honen izenpeari dagokionez, datorren astean betikoa aurkituko duzue, lasai.

Arantzazu Loidi



Mila hitz baino  
argiagoa da  
irudi bat



**GUBI ILEAPAINDEGIA**

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

**E D E L  
TAPIZTEGIA**

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA





Eskulan erakusketan hamar jubilatuk hartu dute parte

## Jubilatuen egoitzetan ekintzak

*Eskulanak, aldizkariak eta sukaldaritzak, besteak beste*

Zaharren Egoitzetan ere hasi dira urteko ekintza berriak. Iaz Erguin eta Abaroan egindako eskulanean erakusketa egin zen asteartean, hamar lagun lanak. Hiru dimentsiotako koadroak, protzelana errusiarra, igeltsoa, galtzerdiz egindako loreak eta abar dira ikusi izan genituenak eta datorren ikasturtean ikasiko dituztenak.

Aurtengo ekintzak ere aste honetan bertan hasi dira, 10ean Abaroan, arratsaldeko 3.30etan eta telebistaren gela. Uribarrin ostegunetan izango da

ekintza bera, eta epea zabalik dago bietarako.

Hirugarren adinekoentzat ekintza hauek antolatzearekin denbora librearen sormenaren aldetik bideratzea bultzatu nahi da. Orainartekoarekin batera sukaldaritzak ikastaroa antolatu dute, eta egunak zehaztu barik badaude ere, arratsaldez izango da, astean behin eta urriaren 20 arte dago izena emateko. Gogoratu, bestalde, hirugarren adinekoek ateratzen duten Ekintza aldizkariaren azken zenbakia atera berri dela.

### Garibaiko Parkea

Garibai parkea eta inguruak urbanizatu eta txukuntzeko ideia lehiaketa egiten den bitartean toki horri irtenbidea eman behar zaiola eta, behin behineko konponketa egitea erabaki du Udalak. Horrela, 2 milioiko aurrekontuarekin lurra lautu, asfaltatu, eta txintxaun berriak jarriko dira, eta aparkalekua dagoenetan utziko da Roneo inguru amaitu bitartean erdi ingurua aparkalekurik gabe ez uztearren.

### Nekazal Ikastaroa

Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak ikastaro bat antolatu du bailadako baserritarrentzat, Nekazaritza eta Ekologia gaiari buruz. Kalitatezko Produktuak eta Diferentziatutako Produktuak aztertuko dira ikastaroan zehar, Garagartzako Kultur Etxean arratsaldeko 7etatik 9ak arte, urriak 22tik azaroaren 13ra bitartean, astelehenetik ostegunera. Izena emateko dei urriaren 19a baino lehen 76 25 47 edo 76 25 48 telefonora.

### Jaiotzak

Aparicio Bellido **Iban**. Irailak 24.  
Romero de la Torre **Azahara**. Urriak 1.

### Ezkontzak

Jose Luis Salaberri & M. Esther Merino, Elizaz Irailak 29.  
Rafalek Vicente & M. Rosario Pacheco, Elizaz, Urriak 6.  
Rafael Carriet & M Purificacion Nuñez, Elizaz Urriak 6.

# Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 79 15 16



AKOBERen garantia eta zerbitzu teknikoarekin

FAGOR SUKALDEEN  
HORNIDURA OSOA  
OPARIGAIK



Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

# UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate Pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412

## ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE





Maila ezberdinetako talde ugari euskaltegietan

## Euskaltegien matrikulazioa

### Udal Euskaltegian eta AEKn ikasturtea hasi

Euskaltegietan ere hasia da 90-91 ikasturtea, eta matrikulaldia amaiturik, talde ugari eta maila ezberdinak Arrasateko euskaltegi bietan.

Udal Euskaltegian 30 talde antolatu dira guztira, gehienak bi ordukoak eta lau orduko bakarra. Euskaltegian bertan emateaz gain, Ikerlan, Aurki eta Gelman ere ematen dituzte eskolak.

Taldeetan, 12 ikasle daude batuz beste, eta langileak, berriz, 17 irakasle, zuzendaria eta idazkaria. Horietatik 11 dedikazio osoz eta besteak hiru orduz nahiz 2 ordu t'erdiz. Iaz hasitako

alfabetatze taldeak aurrera jarraitzen du, jende berriarekin gainera. Bestalde, badira lau talde berezi, *Euskara, hau janaria* kanpainaren barruan ume erdaldunen gurasoek osatutakoak.

AEKri dagokionez, 10 talde daude Arrasaten eta 4 Bergaran, guztira 115 ikasle Arrasaten eta 60 alboko herrian. Erdun bi eta hiru ordutako eskolak ematen dira, bi talderi 3 ordukoak eta gainerakoei hirukoak. Bergara eta Arrasateren artean hamar irakasle dira, sei Arrasaten eta beste laurak Bergaran.

## ETB Arrasaten

Udaletxeko plenuetan eta Gobernuko Batzardeetan itzulpen zerbitzua jartzeko PSOEek egindako eskaerari ezetza eman ondoren azken plenuan sortu ziren istiluak direla eta, alderdi sozialistak Arartekoa-rengana jo du. Albiste horren atzetik etorri ziren ETBko kamarak Arrasatera joan den asteartean, eta Udaletxearen zenbait irudi hartu ere bai, kanpotik zein barrutik. Honelaxe harrapatu genituen, kazetariaren aurkezpena egiteko prestatzen.




# R

# RICOH

## KOPIAGAILUAK

Aukera osoa iharduera-maila bakoitzerako




Eraginkortasun eta errentagarritasun handia bulego modernoetako lanerako

Informazioz nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.  
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ



**ELA**



**E**LAKOOK Euskadiko langileen zerbitzuan dagoen euskal sindikatu baten hautagaiak gara. Euskadin bizi eta lan egiten dugunok, hemendik egindako sindikatua eduki behar dugula uste dugulako, geure premia eta asmoei erantzungo die-na. Eta Europa eraikitzen ere hantxe ari gara, Sindikatuen Europar Konfederakunde-an.

Hauteskunde hauetarako gure programak honako puntu hauek biltzen ditu: Behin-behineko kontratuak amaitu egin behar dira, lan

**Eskualde Ospitalearen egoera aldatu behar da, zerbitzu hobea eskaini dezan**

baldintza egokiak izateko eskubidearen alde, etorki-zun egonkorra izateko eskubidearen alde. Lan baldintzetako iruzurraren kontra gaude, ugazabak gero eta lan-baldintza okerragoak

ezartzen ari dira eta. Konbenietako lorpenek ez dute ezertarako balio gero enpresari-ek legea apurtzen badute. Bizi kalitate hobeari alde, bestalde, laneguna laburtu, dagoen lana hobeto banatzeko, eta aberastasuna produzitzen dugunok parte gehiago izan behar dugu banatzeko. Langilearen biziak eta osasunak ez du preziorik, eta horren aurrean ere segurtasun eta osasun baldintza hobek eskatzen ditugu. Konbeniorik gabe enpresa batetan ere ez dadi-lan inor izan.

Deba Garaiari begira, Eskualde Ospitalaren egoera aldatzera zuzenduko dira gure ahaleginak. Bestalde, 1986an atera genituen ordezkari kopurua, 65, gehitzea espero dugu.

*Julian Balanzategi*

**CC.00**



**U**ste dugu hasuteskuntarako programa bat aterata ez dela nahikoa, gero programa eguneroko lanean eraman behar da aurrera. Gure helburu nagusiak hauek dira:

- Gazteen etorkizun beltza dela eta, kontratazio ebentual eta lan murgildurik ez.

Lan finkoa behin-behinekoak ordezkatu du, langileen esplotazioa handituz. Bestetik ekonomia murgildua zabalduz doa herrian, langileen oinarrizko eskubi-deak galduz.

**Uste dugu emaitzetan lehen edo bigarren indar sindikala izango garela**

- Langilea ez da makina. Lan erritmo gogorregiak, igande, jai edo gauez lan egitea... Enpresari- en buruan produktibitatea eta errentagarritasuna besterik ez daude, eta langileen osasuna azkenengo mailan ge-

ratzen da, eta istripu eta gaisotasunak gehitu egin dira. Beharrezkoa da lan baldintzak hobetzea, langileen osasuna ez da saltzen ez eta ordezkatzeko.

- Kapitalistek estutu dezatela gerrikoa

Gobernua hasi da berriz ere austeritatea ezartzeko asmotan, eta bitartean irabazten irtetzen duten bakarrak kapitalistak dira. Gure bidea erresistentziarena da. Zenbat eta gehiago borrokatu, gutxiago ordaintzen du langileak.

Hauteskundeetarako espektatibari buruz, orainarte-koetan Arrasateko 43 delegatu- etatik 22 gureak dira. Aurrerantzean ere lehengo edo bigarren indar sindikala izango garela uste dugu.

*Juan Ramon Garai*



**AHIZKE-CIM Koop. E.**

ACEIG-FECEIko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	Haurrak	Maila guztiak
Frantsesa	Gazteak	Azterketarako prestakuntza
Ingelesa	Helduak	Ohizko ikastaroak eta trinkoak
Enpresak		

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

**LOREA**

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

**LARRINGAN**

auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA**  
**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



LAB



LAB Sindikatua sendotzen doa Euskal Langilen Mugimenduan eta erreferentzia bilakatu da Administrazio eta Patronalaren aurka dauden arazoetan, nabarmenki distantziatuz CCOO, UGT eta ELAren-gandik.

- Iadanik 40 bulego baino gehiago ditugu zabalik.
- Lantokietan, arazo bakoitzari erantzun aipropose-na ematen diogu, Euskal Langile Mugimenduaren ideologizazioa lantzen dugularik.
- Konfliktu edo arazo

**Euskal Langile Mugimenduaren ideologizazioa lantzen dugu**

guztiak kontestu ekonomiko edo sozio politikoan sartzten ditu. LAB, Euskadiko Ezker Sindikalismoaren erreferentzia bakarra da.

LABek ez du onartzen "Zerbitzu" Sindikatu denik,

Gizarte honen zutabeetatik bat baizik.

LABek Aldakuntza Sozialaren esperantza sortarazi eta landu nahi du.

LABek ez du onartuko, besteen moduan, Kapitalismoak sortarazten dituen desoreka soziala eta apolitizazioa, hainbeste langabetu, marginatu, pobre, sexu diskriminatu... sortuz.

Marku politikoaren aldakuntza aldarrikatzen du; langilegoaren erlazio guztiak, hemen bertan prestatzea eta onartzea beharrezkotzat jotzen.

Deba Garaian 86ko Hauteskundeetan 62 delegatu lortu bagenituen, oraingoan ere, Euskadi mailan bezelaxe, hobekuntza de-xentea espero dugu.

Patxi Arburua

UGT



UGTk langileriari eskaintzen dizkionen artean, alde batetik Gehiengoaren Proposamen Sindikala dago. Aurrerapauso handiak lortu dira: jubilazioena, funtzionarioek zeukaten zor atzeratuarena, eta behin-behineko lan kontratuen errebisioa. Proposamen honen bigarren zatia, oso garrantzitsua, langabeziaren kobertura handitzea da. Orain 52 urtetan dagoena 45ean izatea lortu nahi genuke.

Euskadi mailan, beste sindikatu guztientzat bezala, lehen puntua probintzia-

**Enpresa txikietan ordezkari bila joaten da, baina ez dago lan sindikalik**

ko komenio duhina negoziatzea da. Enpresa txikietan, gainera, bada beste puntu bat oso utzita dagoena, laneko segurtasun eta higienearena. Enpresa txikietan ez da ezer erreibindi-

katzen, oraindik ere nagusiari beldurra zaio. Ezin da osasuna diru truk saldu, eta egiten da. Enpresa txikietan ordezkariak kontatzeraz jotzen da, baina ez da lan sindikalik egiten, ezin delako. Gai horrek guretzat lehentasuna du. Horrezaz gain, aholkularitza lana egiten dugu enpresetan, aseguru eta abar.

Hauteskunderi dagokienez, enpresa txikietan, 6 lagunetik 30erakoetan, behar diren baldintzetan ez dira egiten ari, enpresariak ez dira eta inpartzialak, ez digute denoi aukera bera ematen. Enpresa handiagotan legea errespetatuz egiten da dena, langileak askatasunez ematen du botua.

Salvador Peña

**baldana**

- Medikuntza orokorra
  - Txertaketak
  - Kirurgia
  - Laborategia
  - X izpiak
  - Odontologia
  - Ile apaindegia
- URGENTZIA 76 27 97

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.  
Tfnoa: 76 27 97  
BERGARA

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77


**VE ECUADOR**

Kontzesifto 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz oinetakoak eta poltsak**

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE





▲ Mugarrin auto berri biren aurkezpena izan genuen joan den ostegunean. **Ford Escort** eta **Orion** berriak ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek: aurkezpena ikusi, modelo berri bien ezaugarriak entzun eta ondoren zerbait jan eta edan. Mallorcarako bidaiaren zozketan **Jabier Cedrón** eskoitzarra izan zen zorteko.



▲ Joan den asteburuan jokatu da Hawain munduan dagoen Triathloi probarik gogorren eta ospetsuena: Ironman deritzona, burubelduko gizona alegia. Hara joango ez den arren, burubeldari eta ilusioz beteta ari dena **Juan Martin Elexpuru**, Arrasate Presseko Zelebrekeriak sailaren idazlea dugu. Beteranoen kategorian hainbat garaipen izan ditu beste batzuekin batera, Arrasate Kirolak-ek babesten duen Astore taldean dabil uberarra. Aupa txapeldun!



◀ Argazkiko lagun bi hauek ere ekainean ezkondu ziren, beste arrasatear asko ezkondu ziren garai berean. **Julio Sierra** eta **Inma Calvo** dira, eta ekainaren 23an ezkondu ziren. Zorte on!

Epelde

# LASAGABASTER

## JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



**Izen**  
**PROPIOAK**

● **ANJEL MARI ERRASTI**, 24, atxabaltarra, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izango da, Sarrikoko Zientzia Ekonomiko eta Enpresakoen fakultatean. Anjel Mari Oñati-ko ETEOn eta Sarrikon bertan egin ditu ikasketak, eta Eusko Jaurlaritzan denboraldi batez lanena ibili ondoren Bilbora doa orain.


● **FELIX IÑURRATEGI**, 23, atxabaltarrak Himalayako Pumori mendiaren gailurrera iristea lortu du, 7.161 metro tara. Felix irailaren 22an atera zen Aretxabaletatik. Billaban Agromonia ikasketak burutu zituen, eta mendiko ibilaldiei dagokienez bigarren espedizio handia da, aurrekoa Californiara.

● **ALBERTO IÑURRATEGI**, 22, atxabaltarrak Pumori gaina iritsi du, bere anaia Felixekin batera. Irailaren 29an hemendik irten eta Himalaian elkartu zen Felixekin, espedizioari hasiera emateko. Albertok maestria ikasi zuen Eskola Politeknikoan eta Ederlan kooperatiban ari da lanean.



Aterruna aprobe txatuz harrapatu genituen **Esti** eta **Nagore** Kilometrotan. Aurretik botatako euri zaparradek izutu gabe, eta ondorengoei aurre egiteko ere animo berarekin ikusi genituen. Kilometrotako irudi bat atera behar eta ez dugu, bada, euria eta putzua besterik aterako, ezta? Arrasatear hauek eta beste asko bilduko al da datorren igandean Lizarran ere, eta euri barik, ahal bada!

Asteburu honetan izango da Donostiako Maratoia, eta seguru jende asko joango dela Arrasateetik eta bailada guztiatik. Ekintza hori iragazten duen kartelean, aurpegi ezagunak: 310a **Luis Zabala**, dorsal barik **Pedro Zalama**, 131.a **Pedro Jose Belintxon**, eta atzekaldean, erdi estalirik dagoen bigoteduna **Cesar Diez**. Denak joango ote dira arten ere? Aupa! ▶



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

**arrandegia**  
**arrain freskoa**  
**eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 048

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE



# Maritxu Kajoi larrialdi zerbitzuan

**Festak badu beste aurpegi bat, ospitalean baino ikusten ez dena. Horixe jaso dugu, beste barik.**


**T**xanda luzeak eta ezorduetako larria da larrialdi zerbitzuetakoena. Bertara datozenek, datozen orduan datozela, atentzioa eta arreta aurkituko dituzte erizain edo medikuaren eskuetan. Baita Maritxu Kajoi galean ere.

## Gau baten hasiera

**G**auko 11etan, Arrasate zeharkatu eta Eskualde Ospitalera iritsi naiz. Maritxu Kajoi gaua da baina kaleak bakarti eta isil samar daude, afaltzeko ordua izaki. "Larrialdi Zerbitzuak" dioen atea ireki eta itxarongela baino ez dago, dagoeneko jendez. 'Nik ez dut ikusi ere egin, baina kolpea izugarria izan da', diotsa telefonokoari pasiloan zain dagoen gizon gazteak. Istripu bat izan dela eta motorean zihuan mutila sendatzen ari direla jakin dut, eta gaua mugitua izango dela pentsatu. Patxadaz eseri naiz itxarongela hotzeko jarlekuan, belarriko minez etorri den neskatoaren gura-

soen alboan. Umeak ez dirudi ezer askorik duenik, jolasean dihardu, hara eta hona, eta belarrira eramaten du eskua amak geldik egoteko esaten dionean. Erizainak irten duen unean, neure burua aurkeztu, barrura sartu, eta sendagile-erizainak egoten diren gelatxoan eseri naiz. Barruko gelan, motorekoa sendatzea amaitu dute. 'Oraindik ez dago ezer, istripu bat eta ohizko kontutxoak, belarriko minak eta halakoak'.

Urgentzietako zerbitzuan sendagilea, erizaina, zelataria eta erradiologia eta analisietarako erizaina daude, eta bakoitzak bere lana duenez, egunkariak nahiz aldizkariak irakurtzen dituzte libre daudenean. Atsedean handirik gabe, gauerdialdera etorri da lehen zauritua. Kanean erori eta ebakia egin duen mutil bat da, eta bere atzetik elektroa egin behar izan diote emakume bati. Gaua hasi baino ez da egin eta logureak erre egiten ditu, dagoeneko, larrialdi zerbitzuetakoaren aurpegiak. 'Lehen orduak erraz aguan-



Gurutze Gorriak ere egin zuen bere lana

*tatzen dira, baina 3etatik aurrera hasiko da mugimendurik handiena', eta orduan logureari eutsiko bazaio lagungarriren bat behar du gorputzak. Kafea egin, madalenak atera eta mahaiaren inguruan bildu gara, lasaitasun uneari ihes egiten utzi barik. Maritxu Kajoi gauean mugimendu berezia izaten da zerbitzu honetan, garrantzi handiegi-*

**"Edozein ordutan deitzen du jendeak telefonoz, gaixo batekin hitz egiteko"**

rik gabeko gauzatxoak, baina etengabe.

Kafearen inguruan giro lasaia dago, ordea, lagunartekoa, eta gezurra dirudi kanean festa dela nagusi.


## Kafearen ostekoa

**E**z dira ordubata eta erdiak ere beste auto bat geratzen somatu dugunean. Zelataria joan da atea irekitzera. Mutil gazte batek jarraitzen dio oraingoan, atetik barrura, eskuan zapia eta zapien odola. Txanpan botila irekitzean egin omen du. Denek daukate euren historia, eta kontatu egiten dute. Gaur bereziki, kaleko giroaren berri dakarkigute. Eta kanean bezala, piztu egin da ospitalean ere giroa, ordubiatetik lauak bitartean, bata bestearen atzetik datoz eta. Afariak kalte eginda edo, gazte bat agertu da sabelari helduta, eta baita gizon bat ere. 'Erdiko kalea labana zegoen eta irrist egin du', dio ahopean, baina mingainak traba egiten dio ahoan; eta igeltsoan eraman du tarrazean ekarritako hanka, orkatila apurtuta etorri den neskak bezala. Kolpe bat hartuta etorri diren senar-emazteek, alde egin dute gogaituta. "Batzuk hu-



tsarengatik igual etortzen dira, baita aspirina baten eske er. Beste batzuk, berriz, benetan gaizki egon behar dute hona etortzeko”.

Ordu hauetan ez datoz, hala ere denak parrandatik. Ume baten negarrak eraman



Egunerokoak hunkigarriago dira, umeen kasuan batez ere

## Kolpeak, ebakiak eta mozkorra, jai gauetan larrialdi zerbitzuan

du atezaina sarrerara, eta lau hilabeteko txikia sartu da barrura, gonbitoka eta hotzak. Hemen pasa beharko du gaua. Goizeko Setan etenaldia egon da, gazte bati hankan sartuta zeukan kristala atera diotenean.

### Tira, apur bat gehiago

**A**spertzeko denbora gehiegi gabe, oraintxe da ordurik txarrena, loak ez du barkatzen eta. Kartajokuan hastea bururatu zaio norbaiti, eta atseginez hartu dugu idea, beste kafe batekin batera, begiak irekita edukitzeko. Bitartean, lehengo kontuak, laster izango diren oposaketak, sendagile bati edo besteari larrialdietan gertatutakoa hartzen dira ahotan, osasunaren eta gaitasunaren mugetan mugit-

tzen den jerga berezi horretan beti. Kexuak ere badira: instalazioak ez dira behar bezain onak, oheak mugitzeko ere ez dago lekurik, bisita txartelak jarri beharko lirateke. Izan ere, jendea edozein ordutan sartzen da hemen. Lanera doan gizona norbait bisitatzera etorriko da goizeko seietan, edo gela batekin jartzeko eskatuaz deituko dute telefonoz hiruetan.

Mozkortutakoak etortzen hasten diren orduan amaitu dira karta jokua eta tertulia, eta horren atzetik ebaki gehiago datoz, kolpeak ugari. Eguna argitzen dago eta kaleak jendez batega daudela diote kaleko freskura soinean dakarten parranderoek. Etxera joateko ordua.

## “Gu laguntzera gatoz”

**I**txaron gelan Maritxu Kajoi giroa dago. Narraztutako trajeak, barrenak zikindutako soineko luzeak eta beltzitutako zapatila zuriak dakartzate aldean eta tabako eta edari usaina aidean. Hotzak etorri dira gela hotz honetara, eta umorez dauden arren, lekuaren errespetoz edo, ez diote kantuari ekiten. “Ondo dago?, asko dauka?”, galdetzen dute jakinminez, barruan dagoenarengatik. Kaleko berri galdetzen diedanean, gehiegizkoa dela, ez dela lehengoa, kanpoko jende gehiegi etortzen dela diote. “Jendea gainera erortzen zaizu, kalean denok batera mugitzen gara, eta dagoen kristal pilarekin, eroriz gero, akabo”. Orain arte isilik egon den neska batek, berriz: “Non dago komuna? Taberna guztietan itxi egin dituzte eta...”.

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaioke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, akdi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-laruzko azalak, 24 kilotelako urrez 50tan eginak estanzazioekin.
- Landare-hariz jositako pieguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egin, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

**LASTER PREZIO IGOERA**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**  
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO  
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93



Juan Jose Arrieta

## LKAko zuzendari orokor berria



**J**uan Jose Arrieta izatez Plaentxiarra bada ere, bizimoduak ematen dituen buelten poderioz Donostian bizi da bere emazte eta bi alabatxoekin. Pasa den irailaren 11an Lan Kide Aurrezkiko zuzendari orokor izendatu zuten, Deustuko unibertsitatean ekonomi zientziak ikasi zituen gizona.

— Zer suposatzen du 35 urteko gazte batentzat LKA-ko zuzendari orokor izateak?

— Pertsonalki uste dut erronka garrantzitsua dela. Betidanik egon naiz LKAN, baina beti alde batetik ikusiz. Orain orokorki begiratzeko beste ikuspegi batez ikustea eragiten dit.

— LKA ez da beste kutxa bat gehiago?

— Ez dut uste, sortu zenean helburu batzuekin sortu zen eta horiek oraindik bizirik daude. Beste kutxetan kapitala da oinarri nagusia, LKA eta kooperatibetan kapitala tresna besterik ez da, lanak du garrantzia.

Zentzu horretan LKAN kreditu bat eskatzen duzunean behar bada baldintzak beste kutxetan bezelakoak izango dira, baina badakizu ateratzen diren etekinak beste helburu batzuetara: gizarteari bueltatu koo-

peratibaren bidez lanpostuak sortuz, eta nolabait gizartearen aberastuz.

— *Pertsonalki begiratu gero, ez dira errentagariagoak beste kutxak LKA baino?*

— Argi dago hori bakoitzak neurtu behar duela. LKAN gaudenok, gure beharrak bete eta gero, beste helburu batzuren atzetik gabiltzala iruditzen zait. Bere garaian helburu horiek herri bat egin edo gizartearen alde lan egitea ziren, denborarekin beste erakunde batzuk sortu dira helburu horiekin.

Uste dut, kooperatibis-

“**Kooperatibena ez da eredu perfektoa**”

ten artean, oraindik bada goela kontzientzi edo gauzak aldatzeko gogoia, ez gara bakarrik ogibide batetatik edo dirua irabazteagatik bizi, baizik eta ideal eta gizartearen aldeko lanean.

— *Hala eta guztiz ere jendea ez da gaur egun lanerako bizi, lanetik bizi beharrean?*

— Gauzak aldatzen doaz. Kooperatibak ere gi-

zartearekin batera aldatzen dira, halere uste dut elkartasuna eta printzipioak hor daudela, eta funtsean eutsi behar diegula ahaztu gabe gaurko egoerara egokitu behar ditugula.

Kooperatibena ez dut uste eredu perfektoa denik, badiu gauza on eta txarrak, baina bada behintzat enpresa kapitalista baino eredu hobea. Dena den gauza onak txarrak baino gehiago dira nire ustez, eta guk gauzak hobetzen jakin behar dugu. Hasierako elkartasun izpiritua berreskuratzea guztion lana da, baina batez ere postu altuetan gaudenona.

— *Gauza onak eta txarrak aipatu dituzunez, az-*

Bestalde, uste dut kooperatibetan balio duenak bada duela makina bat aukera erakusteko eta nolabait bere proiektua aurrera eramateko, nire gaztetasuna lekuko.

— *Nolako etorkizuna ikusten diozu LKA eta kooperatiben munduari orokorrean?*

— Erronka pertsonalaz aparte, talde bezala ere oso interesgarria da etorkizuna, Europari begira batez ere. Nahi eta nahi ez, guztientzat erreferentziak aldatu egingo dira, merkatua asko handituko da, konpetentzia oso gogorra izango da... Zentzu horretan kooperatibak eta LKAk aurrerapausoak egin dituzte, ikerketa serioak eginez.

— *Aukera izanez gero Juan Jose Arrietak utziko luke LKA, enpresa edo kutxa pribatuan sartzeko?*

— Ez nuke utziko. Hemen urtetan gaudenontzat uste dut, lehen esan dudan bezala, ez dela lanpostua edukitzea bakarrik, gizarteari proiektio berria eskeintzea litzateke gehiago.

Errealista izanik, uste dut nire adinarekin kutxa pribatuetan antzerako postuan egotea oso zaila izango litzatekeela, ezinezkoa ez esatearren. Egin behar bat betetzen pozik egonez gero, ikusirik ondorioak onak direla, ez da izaten aldatzeko interesik.





## Futbito txapelketa martxan

Zaldibarko futbito txapelketari eman zitzaion hasiera. 900 pertsona dira txapelketa horretan parte hartuko dutenak 60 taldetan banaturik. Denetarik ikusteko aukera izango zen jokatu ziren 30 partidoetan, Zaldibar, kiroldegian, eta Santa Teresa ikastetxean banaturik.

Maritxu Kajoi bixamona zenez, normalean baino akats gehiago egin eta ikusi ziren, baina halere taldeak gogoz aritu ziren. Antolatzaileetarikoa batek zioenez, jendeak luzarozan futbitoan ez duela jokatu igartzen zen.



## Porrota esku eta saskibaloian

Esku eta saski baloi ligei pasa den asteburuan eman zitzaien hasiera. Eskubaloian ia partidu guztian zehar aurretik joan eta azkenengo minutuetan arrasatearrek partidua galdu zuten. Hori baino larriago ibili ziren saskibaloikoak: bi puntuz irabazten ari zirela azken segunduan Patronato taldeak saskiratze hirukoitza lortu zuen, markagailuari buelta emanaz.

## III. Mountain bike Oñatin

Bihar Oñati-Oñati mountain bike ibilaldiaren hirugarren edizioari ekingo zaio goizeko 9.30etan.

Ibilaldiari Zubikoa kiroldegi aurretik emango zaio irteera, handik Kataberara igo eta Udanatik zehar berriro herrira itzultzeko. Aurrez ibilbideak, ez du aparteko zailtasunik, gehiena txirindu ganean egiteko modukoa delarik.



# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

# MIKEL

## Eskaiola, pintura eta kortxoeko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



## OSCAR RAMOS

### Mailu jaurtitzaille gaztea

Oskar Ramos, 15 urte dituen arrasatearra, gutxi gorabehera duela pare bat urte hasi zen atletismoa egiten Iturripeko zelaian. "Egun baten Iturripera joan nintzen denborapasa eta han aurkitu nuen Fernando Zufiria. Ea atletismoa egiteko asmo edo gogorik nuen galdetu zidan. Baietz erantzun nion, probatuko nuela eta geroztik hor nago. Lehen futboleko eta jokatzeko nuen, baina orain atletismoan ematen dut denbora gehiena".

Atletismoan gauza asko egiteko aukera izaten den arren, mailu jaurtiketari eskaintzen dizkio entrenamendu ordu gehienak 72 kilo eta 1.80 metro neurtzen dituen mutil honek. "Hasiera hasieratik ez nintzen honetan ibiltzen, korrika eta egiten nuen, baina laster pasa nintzen mailu jaurtiketara. Orain 36 metro eta 94 zentimetroko marka daukat. Nire mailan, kadeteetan hain zuzen, 41 metro inguru botatzen ditu Euskadiko txapelidunak eta badut esperantzarik mailaz igo aurretik marka hori gainditzeko".

Markak gainditzeaz hitzegiten du Oskarrek eta, dudarik gabe, bide hori hartzeko ezinbestekoa izango du ahal

# PODIUMA



duen guztia entrenatzea. "Benok dexente entrenatzen du, batez ere arlo tekniko, indarrarena berez etorriko baita. Teknikak garrantzia handia du mailu jaurtiketetan. Teknika ondo menperatuz gero, askoz ere errezago da marka onak egitea. Dena den orain, Iturripeko obren erruz, ez daukagu behar bezala entrenatzeko modurik".

Behar bada baldintza egokietan ezin entrenatu izanak Oskar Ramosi Madril aldean egon den egunetan marka onak lortzea galerazi dio. "Noiz behinka horrelako lehiaketa edo konkurtsuetan parte hartzen dugu. Pasa den asteburuan Madrilerako joateko gonbidapena jaso nuen, iaz Bartzelonan ere izan nintzen.

Ezin naiz oso pozik egon han egindakoarekin, egin nituen jaurtiketa gehienak nuloak izan ziren eta. Dena den horrelako esperientziak politikak dira, gainera jende eta bazter ezezagunak ikusteko aukera ere badagoenez..."

## Motor munduan bergararrak aintzindari

Aitor Zabaleta eta Pablo Irizar bergararrak bikain ari dira azkenaldi honetan kotxe lasterketetan eta bakoitza bere espezialitatean.

Gogora daitekenez duela bi aste Aitor Zabaletak Arrateko igoeran lehen postua lortu zuen ia etsirik izan ez zuelarik. Gauza bera egin du bergararrak pasa den asteburuan La Faya de los Lobos-eko igoeran, Asturiasen. Euria gogoz egin omen zuen baina halere bergararra onena izan zen igorako 85 kurbetan, guztira 30 segunduko abantaila atereaz bigarren sailkatuari. Azken bi garaipen hauek kontutan hartzen badira itxura baten badirudi Aitor Zabaletak atzean utzi duela aurtengo denboraldian izan duen bolada eskasa.

Zabaletari azkenaldian gauzak ondo joan bazaizkio, behar bada hobeto Pablo Irizarri. Espainiako AX txapelketan hartzen du parte bergararrak, eta pasa den asteburuan Jaraman burutu zen frogan lehen postua lortu zuen. Garaipen hori ez zen kasualitate hutsa izan, orain arte txapelketa horretako 6 frogan egin bait dira eta Irizarrek bostetan podiumeko gorenera igo du. Txapelketako lehen postuan dago une honetan Pablo Irizar eta seguruenak berak irabaztea litzateke, bi frogan besterik ez bait dira gelditzen eta bietatik baten helmugara hamargarren iritsiaz gero, txapela berea litzatekeelako. Txapel hori lortuko balu datorren denboraldian Pablo Irizarrek kategoriaz igoko luke, promozio mailara hain zuzen, formulako bidean aurrera.



# AXOLA KLIMA

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46



## AC / DC berriro erasoan

**S**eguru asko, Arrasateko gazteak musika talde bakar bat aukeratu beharrean jarriz gero askok eta askok AC/DC izendatuko lukete, aspaldiko ia hiru urtetan disko berririk kaleratu ez duten arren. Disko falta honek, hain zuzen ere, zalantza ugari sortu du taldearen etorkizunari buruz. Baina zalantza guzti horiek ezabatzeko oraintsu atera da taldearen disko berria, "The razor's edge" izenekoa. Diskoa aurkeztuz egindako elkarrizketa batean, honako hauek irakurri dizkiet Angus Young-i, taldeko gitarrajole praktikotzari:

"Bruce Fairbairn, Bon

Joviren ohizko produktoreak egin du azken disko hau eta oso pozik gaude bere lanarekin. Gure ohizko soinu gogorra errespetatu egin du, aldi berean gaurko teknikak ematen dituen aukerak erabiliz. Rock klasikoa egin nahi genuen, betikoa, gaur egun heavyan modan dauden bigunkerietan inola ere erori gabe. Gurea ez da pijoentzat musika komertziala egitea, rock gogorra baizik".

"Gure kantuen hitzak egiterakoan ez gara gehiegi konplikatzen. Besterik gabe, edozein egunetan kalean gertatu zaiguna aipatzen dugu, edo garagardoa hartzen duguneko lekuak edo gurekin lo egiten duten nes-

kak. Beti ere tonu arinean".

"Kontzertuek asko nekazten dute, eta jirak nazkagarri bihurtzen dira azkenerako. Baina lan guztiak lan dira. Benetan inporta diguna musika eta negozioa bereiztea da, rock and rolla eta dirua, eta tranpa horretan ez erortzea. Jota sentitzekotan,



izan dadila gau osoan musika jotzen ibili garelako, eta ez disketearekin musikatik at dauden arazoak eztabaizatzen aritu garelako".

"Drogak eta gehiegikeriak kaltegarriak izan dira rockarentzat. Jimi Hendrix, Janis Joplin edo Jim Morrison bezalako artisten eboluzioa ikusi ezinik utzi gaituzte eta hori aski da guk gorrota ditzagun. Baina bestalde askoren inspirazio-iturri izan dira eta musikaren aro bat markatu dute. Zaila da auzia. Nire aldetik, neure buruari ondo sentitzea dut helburu, eta hau estimulagarri horietatik aldentuta bakarrik lor dezaket".

Mikel Irizar

## Hitzaldiak

### "Ariketa fisikoa eta emakumea"

- Urriak 18, osteguna: **ARIKETA FISIKOA ETA EMAKUMEA**
- Urriak 25, osteguna: **GIMNASIARAKO SISTEMA PASIBOAK ETA ONDORIO BIOLOGIKOAK ORGANISMOAN**

Emalea: **Sabin Padilla (Kirol medikua)**

Ordua: **arratsaldeko 3etan**

Tokia: **AEDn**





# ARRASATE

# Lehiaketak

# 90

BERTSO  
PAPERAK

IPUINA

POESIA

Ipuina, poesia eta bertso-paperetan  
gazteentzako lehiaketa eta sari bereziak!

KOMIKIA

ARGAZKIA

BIDEOA

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA:

AEDn, Pablo Uranga 4 etxebehea, Tfnoa: 79 54 46

*Animatu eta parte hartu!!!  
Sari garrantzitsuak*



Lanak aurkezteko epea: 1990ko azaroaren 1a.

AEDk antolatuta Arrasateko Udalaren laguntzaz





## Diglosia gradu kontua ere bada (II)

**D**iglosia funtzionala: (bigarren graduko diglosia) bi komunitate linguistikoren baten egoera txarrean.

Diglosia funtzional hau, komunitate linguistikoa bi aldetan zatiturik egonik, bietariko baten desoreka suertatzen denean ematen da. Hau da, hizkuntzak bi lurralde ditu. Batean funtzio nazionala betez nagusi izango da eta bestean menperatua, funtzio gutxi betetzen bait ditu. Diglosia honek, pertsonengan eta komunitate linguistikoren alde batean izango du bazarrik eragina, hots, funtzio gutxi batzuk baino betetzen ez dituen lurraldean.

Diglosia hau egonkorra

edo mantenezina izan daiteke; martxan jarriko den hizkuntz politikaren arabera, alegia. Egonkorra komunitate linguistikoren alde bateko egoera ona ez izanik ere, hizkuntzak galtzeko arriskurik ez duelako, beste lurraldean funtzio guztiak betetzen bait ditu. Mantenezina, funtzio gutxi betetzen dituen lurraldean etengabeko lehian arituko bait da funtzio nazionala betetzen duen hizkuntzarekin.

Esate baterako, Belgikako iparraldean holandesa galdu izan balitz, komunitate linguistikoren alde bat galduko zen, baina ez hizkuntza bera, holandesak funtzio guztiak betetzen jarraituko bait luke Holandan.

Diglosia glotofagikoa: (hirugarren graduko diglosia) Hizkuntzari dagokion funtzio gutxi batzuk baino betetzen ez dituenean.

Hizkuntzak komunitate linguistikoa bakarrean funtzio gutxi batzuk baino betetzen ez dituenean, desoreka komunitate linguistikoa osoan ematen da. Kasu honetan ematen da, hain zuzen, diglosia glotofagikoa; hau da, hizkuntza autoktonoa, komunitate linguistikoa osoan funtzio estandar nazionala betetzera helden ez denean.

Diglosia honek eragiten dio, pertsona, komunitate linguistikoa eta hizkuntzari berari. Komunitate linguistikoa galtzeaz gain, hizkuntza bera galtzeko arrisku

bizian dago. Euskarari, gaztelaniarekin eta frantsesarekin lehian, horixe gertatzen ari zaio mendeak joan mendeak etorri.

Inposatutako bi hizkuntza hauek, euskarak bete beharreko hainbat funtzio betetzen dituzte, euskarari dagokion funtzio estandar nazionala galaraziz. Horretaz gain, gaztelaniak eta frantsesak badute beraiei dagokien komunitate linguistikoa, non funtzio guztiak betetzen dituzten. Euskarak ordea, Euskal Herria du bere komunitate linguistikoa bakarri eta galduz gero, ez soilik euskaldunok, gizateria osoak ere galdua luke euskara betirako.

Atalataikoan

### Jubilatu eta Pentsiodunentzako

### laguntza kanpaina

- **Dohaineko** begi birrikustapena azken teknologiako tresneriez.
- Betaurrekoak kristal eta guzti, uruti edo gerturako, **5.900 pta.**
- Lente bifokaldun betaurrekoak, **9.300 pta.**
- Kalitate handiko kristalak eta eguneko armazoiak.

Bisita gaitzazu konpromezurik gabe! BERGARA, ARRASATE eta ORDIZIAko dendetan, MULTIOPTICAS taldeko bakarrak DEBA eta GOIHERRIrako.

"MULTIOPTICAS" en ABANTAIK

## J. Larrañaga OPTIKA

S. Pedro 22, Tfnoa: 76 15 75 BERGARA • J. Carlos Gerra 1, Tfnoa: 79 29 95 ARRASATE •  
Gudarien Etorb. z/g, Tfnoa: 88 99 88 ORDIZIA

### CANARIASETARA BIDAIK ZOKKETATZEN DITUGU



## Marina Mendiguren



**2** 8 urte daramatza Marinak autoan, eta poltsa bizkarrean eramatea bezain eroso egiten zaio R-4a gidatzea. Abiadura ez zaio gustatzen, beti 80-100 artean ibiltzen da. Egunez bezala ibiltzen da gauez ere, baina gauez kamino ezagunean askoz ere errazago gidatzen dela dio, "kurbak hobeto ikusten dira". Asteaz zehar nahiko ibiltzen denez, asteburuetan ez du ikutu ere egiten, beste norbaitek eraman dezala. "Arrasate oraindik leku ona da autoz ibiltzeko, aparkatzeko ez dut arazorik, beti atean uzten dut eta".

**Construcciones ARRASATE S. L.**

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE



# Euskal Pirineoak bizikletan. 1990eko uda (II)

**D** enbora: 4 ordu,  
43 minutu.  
63 km guztira  
Ibilbidea:  
Otsondo - Gorramendi - Errazu - Izpegi mendigaina - Baigorri

Bigarren eguna zegoeneko. Egunsentian txori kantuak iratzarri gintuen. Denok egun berriari aurre egiteko prest; gosalduta eta bizikleta gainean ibiltzeko adore faltarik ez. Otsondoko ur fresko eta gardenetik edan eta Gorramendi aldean jo genuen.

Lehenbizi Urrizte gaina zeharkatu beharra izan genuen, alboan Artxizuri utzi eta Eskosko mendigainetik Gorramendira heldu ginen. Egundoko ikuspegia



Bizikletan Baztan aldean

geneukan gure aurrean: ezker aurrekaldera Iparla mendia eta aurrez aurre Autza mendia (1.306 m) Baztango parajerik dotorenetako bat, zalantza barik.

Argazki batzuk atera eta zuri-berde marka batzuk hartuz, beheranzko bidea hartu genuen. Ezkerretara

Urrizate amildegia, saien txokoa eta eskumataraz Baztan, Errazu inguruak. Aparteko miralekua da.

Une batez "Errazuko Iztarien Etxola" dagoen lekura iritsi eta hortik eskumataraz hartu eta beherantz bideraino heldu ginen.

Sekulako aldapa zegoen


eta kontuz ibili beharra izan genuen. Errazu inguruak laga eta Izpegi mendigainera abiatu ginen. Bidean baserri mordoa, alboetan zuhaitz mota ugari: leizarrak, astigarrak, gaztainondoak, intxaurrondoak, haritzak, sagarrondoak, denetik zegoen.....

Izpegin zorioneko "muga"rekin topo egin genuen; sarreran denda-taberna horietako bat eta aurrerago aduana. Ondoren eskumataraz beste taberna bat. Garagardo pare bat edan eta jarraitzeko prestatu ginen: Bizikleta problemarik ez eta dena aldatz beheran. Mereziru dau bai inguru aparta hori ezauketiek.

(Jarraituko dau)

## Bergarako Taun-Taun txotxongilo taldeak

aurkezten du:



- URRIAK 13 larunbata
- Arratsaldeko 7etan
- Herriko Plazan



eta lorea

Arrasateko Udala




Gipuzkoako Foru Aldundia





**AZ**

 **tarjeta 6000**

**Tarjeta 24**

**GK:**

**GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ►

## **GK TXARTELA**

### **Aldean eraman aldiro**

Gipuzkoako Kutxaren  
GK Txartela eraman behar  
da aldean, eguneraturik  
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren  
Kutzazain Automatikoetan  
erabateko erosotasunez  
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe  
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez  
baliatzeko.

Era automatizatuan eta  
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe  
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

**GK:**

**GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA**



Aste gazte

"Gazteria Europarekin"


Gazteen elkartrukeak sustatzeko Programa dugu. Europako herri ezberdinak ezagutzeaz gain, gazte europarren artean adiskidetasuna, ulermena, haien interesak, e.a. bultzatzea dira programa honen helburu. Honi buruz informazio gehiago emateko bilerak antolatuko dira, interesatu guztientzat.

Kirol Unibertsitate karneta

• 90/91 ikasturtean Gipuzkoako Campusean ikasketak burutzen ari direnentzat. Kiroldegiak (Anoeta, Altza, Bidebieta), pilotalekuak, izotzezko pista, gimnasialekuak, e.a. erabiltzeko. Prezioa: 2.000 pta.

Bekak

• Unibertsitate-bekak 90/91. Deialdi bakoitzean ezarritako betekizunak di-



tuzten ikasleentzat. Laguntza orokorrak (epea: 91-10-15) eta garraiorako ez ohizko laguntzak (eskatzeko epea urrian zabalduko da).

Kongresuak

• Historiagileen Eskola Askea, Sevilla. Ikertzaile gazteek beraien lanak agerriarazteko foroa sortzea da helburua. Egunak: Azaroak 20-30. Izena emateko epea: 90-11-29. Prezioa: 1.000 pta.

Lehiaketak

• "Pablo Sorozabal" I. Musika-Konposaketa Lehiaketa. Musikalanek kordazko laukoteentzat idatzita eta, gehienez, 25 minutuetako iraupena izan behar dute. Saria: 500.000 pta. eta diploma. Epea: 90-11-17.

• "Bilbo Hiria" Antzerki gidoiden II. Lehiaketa. Euskaraz zein erdaraz. Gai libre. Saria: gidoi saritua

Bilboko antzoki batetan urtebeteko epean eta 5.000.000 pta. gehienezko aurrekontuaz eszenaratzeko izango da. Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 30erarte.

• "Bizenta Mogel" IX. Ipuin Lehiaketa. Lanek 4 eta 10 orri bitartekoak izan behar dute. Sariak: 65.000, 40.000 eta 25.000 pta. Lanak aurkezteko epea: Urriaren 31arte.

• "INSERSO" Sariak. Gaia: kolektibo baztertuaren probentzio eta integrazioa. Estatu espainoleko edozein hizkuntzatan. Modalitateak: a) kazetaritza (sariak: 500.000, 300.000 eta 200.000 pta.) b) irratia (sariak: berdin) c) Telebista eta bideo (sariak: berdin) d) argazkigintza (sariak: 200.000 eta 150.000 pta.) e) ikerketa eta laguntza teknikoak (sariak: 750.000, 500.000 eta 300.000 pta.) Lanak aurkezteko epea: Urriaren 31arte.

Ikastaroak

• Espeleologia Ikastaroa Arrasaten. 4 igandetan, Azaroaren 10etik Abenduaren 2rarte. 16 urtetik gorakoentzat. Izena emateko epea: Urriaren 19rarte. Doan (federeatuta ez daudenek aseguru ordaindu behar dute, 500 pta.)

• Arteleku: Pintura Tailerra, Ramon Zuriarrainen eskutik. Azaroaren 15etik Abenduaren 15era, goizeko 9etatik arratsaldeko 20etara. Plaza mugatuak (aukeraketa egingo da). Prezioa: 12.000 pta.

Erakusketak

• Urriak 17-30: "Gizakia eta bere inguru ekologikoa". Monterronen.

Informazio gehiago:  
Gazte Zerbitzuan,



77 00 65

EUSKAL HERRI BERRIA

Zure esku!!



eman botua

HERRI BATASUNAri

• Mitina •

Urriak 19 (ostirala) 7.30etan  
Sebero Altube enparantzan

• Afaria •

Urriak 19 (ostirala) 9.30etan  
Txartelak Irati Tabernan



## ETXEBIZITZAK

- **Gutziz berrizitutako etxebizitza salgai.** 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, hornitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tfnoa 79 49 49
- **Apartamentua alokatzen da Laredon.** Interesatuak 793147 tfnora deitu.
- **Alokatzeko etxebizitza bila gabiltza.** Dei egin 94-683 09 48 tfnora.
- **Etxebizitza saltzen dut San Andresen.** Zabalda, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Igogailua, berokuntza, antena parabolikoa eta hari musikalak. Interesatuak 79 51 09 tfnora deitu.
- **Hiru neska behar ditugu pisua osatzeko Donostian.** Tfnoak: 79 69 80 eta 79 50 28. 8etatik aurrera deitu.
- **Irakasle taldeak alokatzeko pisua behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...).** Tfnoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- **Donostiara ikastera doazen hiru neskek beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizi izateko.** Deitu 79 50 45 Tfnoa. Mertxe.
- **Lokala behar dugu alokairuan (ez komertziala), bertan gure lana burutzeko.** 50m<sup>2</sup> inguru. Berdin dio non eta nola dagoen. Tfnoak 79 21 09 eta 79 95 83.
- **Neska euskalduna behar dugu Gasteizen pisua osatzeko.** Tfnoa: 79 50 53.
- **Neska behar da Donostian pisua osatzeko.** Tfnoa: 21 90 80

## LANA

- **Aretxabaletako Josteko Oihal dendak** esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90
- **"Umezaintza" haur-eskolak pertsona bat behar du jangelarako eta arratsaldeko azkenengo orduetan umeekin egoteko.** Orduetia: 11.30etatik 13.30ak arte eta 5.00etatik 6rak arte. Derrigorrezkoa euskara ondo menperatzea. Interesatuak deitu 79 01 02 telefonora.
- **Andra euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 07 73
- **Gustora hartuko nituzke estatistikako klase partikularrak.** Emateko prest bazaude, deitu tfnoa: 79 51 47
- **Klase partikularrak ematen ditut.** Deitu 79 84 75era. Judit. Euskaraz edo erderaz emango ditut.
- **Neska gazte batek etxeko lanak eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 15 56
- **Latin, griego eta euskarazko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 50 88
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen ume txikia zaintzeko, urtariletik aurrera.** Tfnoa: 945 - 22 62 22
- **IEE bigarren mailako fisika eta matematika** ikasketak ematen dira (injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaba eta igandea bitartean)

## SALEROSKETAK

- **Izozkailu espositorea eta "Mikra" pixu elektronikoa salgai.** Tfnoa: 78 04 06. Deitu goizetan.

- **Violoncello berri-berria salgai.** Interesatuak deitu 79 47 95 tfnora 8etatik aurrera.
- **Gibson itxura duen kitarra salgai.** Tfnoa: 79 88 81 Jose.
- **Seat Ritmo oso ondo zaindua salgai.** Probatzen uzten dut. Tfnoa: 79 25 19.
- **Anplifikadorea Rolan 60 Watiokoa salgai.** Tfnoa: 79 29 86
- **Solarium-a eta estetika aparailuak salgai.** Tfnoa: 75 24 66 Esther.
- **Fotokopiagailua salgai.** Sark SF 7400 markakoa. Tfnoa: 76 62 68
- **Peugeot 205 GT salgai.** Bost urte eta 85.000 km., egoera onean. Deitu 77 08 95 tfnora ilunkaran hobeto.
- **Philis musika ekipoa salgai.** Tfnoa: 76 40 50. 10etatik 13etara eta 17.00etatik 20.00etara

## DENETARIK

- **Gela konpartitu baten ohea alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Frantsesetik itzulpenak eta bestelako mekanografi lanak egiten ditut.** Ana. Tfnoa 795676
- **Eralkitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan.** Deitu 792586 tfnora
- **Datorren ikasturtean Madrilera joan beharra daukat ikastera.** Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- **Txakurkumea doan ematen da.** Ez da arraza garbikoa, baina oso polita da. Tfnoa: 79 82 01
- **Astelehen goizean Donostiara joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartzeko lirateke.** Dei 79 13 83 Arrasate.



**ARRASATEN  
HILDAKOAK**



**Braulia Zenitagoia Arbulu**  
urriaren 2an, 81 urte

**Juan Agirre Bengoa**  
urriaren 6an, 80 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 77 08 15**



# Zer nahiago?

## Arantxa Madina Zangitu dendakoa



- Goiza ala arratsaldea? Goiza.
- Haragia ala arraina? Arraina.
- Telebista ala zinema? Ez naiz joaten, baina zinea gehiago gustatzen zait.
- Hormarako, pintura ala paper pintatua? Papera, atseginagoa, goxoagoa da.
- Papera lisoa ala erliebeduna? Loraduna.
- Pintura matea ala briloduna? Satinatua, ez brilorik eta ez materik.
- Vermouth-a ala kafea? ez bata eta ez bestea.
- Janaria gatzarekin ala gatzik gabe? Gatz barik, beti.
- Liburua ala aldizkaria? Denborapasak gehiago. Gurutzegramak egiten ditut.
- Erregalatzeko, lore sorta ala bonboiak? Segun nori.
- Jasotzeko, lore sorta ala landarea? Gehiago gustatzen zaizkit lorak.
- Entsalada, ozpinarekin ala ozpin barik? Ez dut entsaladarik jaten.
- Ohe gogorra ala biguna? Gogorra.
- Irratia ala diska? Irratia, egunez baino gehiago gaez.
- Maritxu Kajoi ala Ihauteriak? Ihauteriak, mozorrotuta etortzen naiz dendara.
- Permanentea ala ile lisoa? Lisoa.
- Tangoa ala balsa? Biak.
- Oporrak Arrasaten ala kanpoan? Gustatu kanpoan gehiago, baina hemen ere gustora egoten naiz.
- Joatez gero, talde antolatuan ala zeure kontura? Neure kontura.
- Ospatzeko, urtebetetze eguna ala santuarena? Biak zelebrazten ditut.
- Aukeran non erosiko zenuke etxea, Donostian ala Errioxan? Donostian, mesedez!
- Hotza ala beroa? Hotza.
- Egunpasa mendian ala kostaldean? Mendian.

## Zelebrequerixak

**F**ernando eta Antoni bere andria beti demanda baten ibiltze ei zien. Batak "xurixa" esaten baeban, bestiak "beltza", eta sekula ez zetozen bat.

Egun baten egundoko hasarrealdixa izan eben andra-gizonok: zaratak, bul-tzarak... kriston eskandalua. Azkenian Antonik, bere onetik urtenda, alde egin eban etxetik bere burua ibaira bota bihar ebalasana.

Hasieran Fernandok ezotsan haintza-kotzat hartu baiña denporia pasau eta etzala etxera agertzen ikusitta, farola eskuan hartu eta andra billa urten zan.

Ibai ertzera jo eta errekan gora abixau zan, Osintxu aldera. Bidian Fernandok lagun batekin egin eban trink eta honek esan zotsan Fernandori.

- Zer habil, Fernando?

- Andriak etxetik iges egin jostak bere burua ibaira bota biha dabela esana, eta haren gorputzan billa.

- Baiña gizona, urak beherutz eruan-go jua eta ez gora.

- Bai zera. Eztok asko ezautzen gure andria. Haura dan terkuakin, kontria eruatearren seguru najaok errekan gora joan dala.

**B**ehin Fernando zapatak eroatera joan zan. Zeukan galtza pare bakarra garbitzen zeukan, itxuria, eta zapata berrixok galtza barik probau zittuan. Zapatarixai grazia egin zotsan honek eta zera esan zotsan adar-soifuan:

- Honek amak eiddako galtzok etxazek sekula zulatuko.

- Etxakixat pa. Kantzontzilluak pe klase berdifekkuak jauzkat eta egundoko zulua jaukek erdixan.

Juan Martin Elexpuru

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21 Tfnoa.797006  
ARRASATE





Gemika. Mondragoetarrak Jose Antonio Agirrerekin 1931

**I**noiz erreferendunera eramango ez zen Lizarrako Estatua-ren garaia zen. Getxo, Zangotza, Laudio eta Azpeitiko Udalen ardura-pean Eusko Ikas-kuntzak idatzitakoa zen, eta 427 Udalek onartua Lizarran, 1931ko ekainaren 14ean. Abertzaleak eta tradizionalistak batera ari ziren Estatu proiektua bultzatzen. Mitin eta batzar ugari antolatu zituzten, proiektua ezagutzera emateko. Gemikan ere mitina egin zuten.

Hizlariak, Jose Antonio Agirre, Getxoko alkatea, Marcelino Oreja Elozegi diputatu tradizionalista mondragoetarra eta Oriol, tradizionalista arabarra. Mondragoeko gazte koadrila bat, autobusa hartu eta Gernikara abiatu zen. Mitinaren ostean, Gemika eta Getxoko alkateak arrasatearren ondoan pasatu ziren, eta Pañero aramaixoarrak argazkia eskatu. Getxoko alkatea, gerora Euskadiko lehen lehendakaria izango zen Jose Antonio Agirre zen "Txokolatero" ere deitua. Gernikako alkatea, Sebero Altube mondragoetar euskaltzalea. Mondragoetarrekin batera baziren han

ezagutzerik izan ez ditugun kanpotarrak. Zutik ezkerretik hasita, Gregorio Madinabeitia, Markos "Artxubi", ezezaguna, Sebero Altube, Benito Axpe, Alejandro Mendizabal "Karral", ezezaguna, Jose Antonio Agirre, ezezaguna, Joaquin Baltategi, Gregorio Orobengoa, ezezaguna, Pablo Bolinaga, Murua eta ezezagunak. Belauniko ezkerretik, ezezaguna, Pedro Murgoitio, Pablo Agirre "Belarru", Pako Unamuno "Kotxero", azken biak ezezagunak. Jarrita Sabin Arrieta eta Benantzio Gastañares, azken hau gerra denboran fusilatua.

**PUB HAIZEA**

arrasate

**ENARA**  
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



# Hitz gezidunak

*	Zezen zikiratuak	Ur gaine-koak	Gaude	Hutsa
*	Gogoko	Udako hilabetea		*
			Alfabetatze Euskaldun. Koordinak. Bokala	
Errenta ordaintzaile Bizk. Makal			Argi, hitz elkar.	
			Nitrogenoa	
Zenbakia	Seigarren hilabetea *		Einstenioa	
			Jatorri	
		Kasik	Lizarraldeko ibaia	
		Miatu	Gabarra	
50	Auzapez			
Arazoa	Eltzanarazia			Ondoren
			Gauero ohi dugu	Kontsonantea
			Oholak	Har ezak
Bizk. Iratze		Bitarte		
Ahulezia		Bat		
			Atzizkia	
			Lutezioa	
*	Eta	Eki. Euli		Zero
	Emakumezko gurasoak	Saiatu		*
			Fosforoa	
			N.A.N.	Moite
Suerte ona			Gip. Duk	
Leku hartan			Alkoholen bukaera	
	Irudi sagaratu			
	Iodoa			
Abelen anaia			53	

## Soluzioak

I	I	I	L	.	N	I	V	K	=
V	O	N	O	K	I	N	V	H	
K	E	D	E	V	K	V	M	V	
-	P	U	L	E	Z	E	G	V	
O	I	L	U	L	I	V	L	.	
O	R	I	K	I	V	K	I	V	
E	R	T	E	V	I	R	V	I	
G	L	O	V	V	L	F	V	V	
-	E	V	L	K	V	L	V	L	
V	E	G	V	I	V	L	B	V	
S	E	S	I	N	I	V	E	K	
T	R	T	Z	Z	L	V	M	V	
V	R	V	Z	I	Z	I	M	V	
K	.	N	D	U	N	V	Z	.	
V	.	G	U	I	.	D	.	.	

ENBIDOTik hartuta, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
 BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN  
 IZEN-DEITURAK.....  
 HELBIDEA.....  
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

**ARRASATE  
 PRESS**

**77 05 65**



**J**ose Luis Zabala idazle gazte baina obra luze eta zabalekoa dugu jadanik. Azkoitiarra, euskal filologia ikasi zuen Donostian, oso goiz literatur lanak kaleratzen eta sariak irabazten hasi zelarik: Tene Mujika, Azkue eta abar luzea. Lau liburu kaleratuak ditu Juan Luisek, narratibazkoak guztiak, nobela zein ipuin bilduma: *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (1985), *Ahantzuraren artxipiela* (1987), *Ger-taerei begira* (1988) eta *Kaka esplikatzeko* (1989). Baina poesiaren arlora ere zabaldu ditu bere ahaleginak, hemendik aurrera *Arrasate Press*-eko Zeuk Sortuan noizean behin kaleratuko ditugun poemok lekuko.

## Betikoa

... Betikoa, beti berdin...  
Kotxe berria erosten ez duzun bitartean...  
Orduan, berriro,  
haurtzaroko une elektrikoan antzeko zerbait  
sentituko duzu,  
eta oroimenaren mailukada bustiek  
etsi egingo dute,  
nahiz eta kotxe berriaren airean  
anti-ezerezik izan ez.

Hobe zenuke zapi berria erosi  
eta oroimenaren mailukadak lehortzen  
ezerezaren aspertasuna hiltzea,  
tristuraren elektrizitatea sentituz.

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizenziatua Arrasate



✓ **NAFARROA OINEZ.** Eguz bairio, eguna sustatu eta telebistan iragartzeko egin den bideoaz ari naiz. Seguruena euskararen alde egiten diren egun guztien artean -Kilometroak, Herri Urrats, Araba Euskaraz eta Ibilaldia- hau izango da promoziozko lanik txukunena bideo mailan. Bertako umeez hartzen dute parte, probintziako jende ezaguna, irudiak ere oso politak dira eta abestia, berehala sartzen den horietakoa. Aukeran luzegeia, behar bada.

✓ **BERNARDO ATXAGA.** *Obabakoak* obrarekin Espainiarako Literatur Sari Nazionala irabazi zuenetik, elkarriketa asko eman ditu asteasuarrak han-hemenka. Hala ere, neu behintzat ez naiz aspertzen Bernardori entzuten. Oso kontalari aparta da, istoriak kontatzen ari dela ematen du, eta gura barik, sartu egiten zaitu elkarriketaren harian. Horretaz gain, beti dauka sorpresatxoren bat. Azkenengoz *Nortasuna Agirian* ikusi nuen, ETB1en, Luis Iriondo Etxanizek elkarriketatua.

✓ **EGURALDIAZ BERRIRO.** Aurreko zenbakian ETBren asteburuko albistegian eguraldiari buruzko informazioa aurkezle barik egiten zutela aipatu nuen, eta horrek zeuzkan desabantailak, nire ustez behintzat. Eguz hauean, berriz, lehenengo aldiz nire akorduan, neska bat ikusi izan dut ETB1en, eguraldia aurkezten.

Sorpresaz aisekina benetan, aurkezleak oso ondo egin bait zuen bere lana. Berez denboraz ekitaldia luzeagoa izan arren, ahotsak ofean irakurtzen duenean baino, laburragoa egiten da, pertsonalagoa den neurrian. Txalo bada, ETB1eko arduradun eta eguraldi aukezleari.

Joxe Aranzabal

## Gusto baduzu

### ☐ MUNDUAREN BERRAURKIKUNTZA

Jende gehienak Tahitiz hitzegiterakoan paradisuaren tentsioa du. Hala ere, lurralde hau aurkikuntza zientifikoaren biktima da, arma nuklearrena. Calypsoa, Jacques Cousteauren zuzendaritzapean, Tahitira hurbilduko da bere ekosisteman saiakuntza nuklearrek sortzen duten eragina argitu nahian.

### ☐ IKUSMIRA

Programa honetan, aurreko urteetan bezala, zineaz eta antzerkiak hitzegingo digute. Programa bakoitzean, besteak beste, karteldegian dauden filmeen berri emango da irudien bidez.

Zinegileek egindako elkarriketak eskainiko dira eta pelikulen errodiak ere izango ditugu ikusgai. 23.10etan.

### ☐ BABEL

Programa honetan portaera eta izaera desberdinak dituzten pertsonaiak izango dira, gehienak euskaldunak, herri eta hirietan aurkitutako solaskide apartak: kirolariak, menturazaleak, lanbide ezberdinetako profesionalak, kantari, antzezle edota kultur munduko partaideak. Asteartea, 21.10etan.

## Bideoak

### IHAUTERIAK

Bideo sail hau hiru kapituluz osatuta dago, hirurok ihauteria gaitzat dutelarik. Hiruretan Euskal Herriko zenbait herritan nola ospatzen den ikusten da: antzezpenak, mozarroak, dantzak, abestiak. Erdi eta goiko ziklotako aurrei zuzendua, haurrek Euskal Herriko ohiturak ondo ezagutzeko aukera izan dezaten.



## Ostadar irratia

### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

### ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ii* (Haur kantak)

### OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabakletak)

OSTADAR Irratia. 102 FM





asteke

**PROGRAMAZIOA**

**8 ASTELEHENA**

- 19.00 Teletestua era guztietako abisu eta informazioarekin.
- 20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Mondrasport Beñardo Kortabariak aurkeztua
- 20.40 Erreportaiak Besaide Mendi elkarte
- 20.45 Berriak (errepikaldia)

**9 ASTEARTEA**

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Mondrasport (bezperakoa)
- 12.40 Erreportaia (bezperakoa)

**10 ASTEAZKENA**

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu mahaingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Kirol planteamendua Arrasaten.
- Berriak (errepikaldia)

**11 OSTEguna**

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)

**12 OSTIRALA**

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak Begonia Garaik aurkeztua
- 20.20 Erretratoa J.R. Elortzak aurkeztua. Gorbidatua: Joxe Arriaran pelotari ohia.
- 20.50 Musikantoi.
- 21.30 Berriak (errepikaldia)

**13 LARUNBATA**

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Erretratoa (bezperakoa)
- 12.50 Musikantoi (bezperakoa)




luntasunean Koldo Rodriguez bakarrik ezagutzen da. Izan ere, bere aurkezpen saio bat grabatzera etorri ziren BBCkoak beste egiteko barik. Zinemako kamararekin grabatzen dute britainiarrek, eta inondik argirik sar ez dadin zirriztu guztiak tapatu behar izan ziren, 92rako prestatu behar duten erreportaia horretan gure irudia ongi ager dadin.



**B**ai, berriz ere Beñardo. Izan ere, jendeak ez du hala usteko, baina gure aurkezleek guapo jartzen dakite programa hasi aurretik. Beñardo ere bizarra mozten harrapatu zuen argazki makinak. Ikus dezazuen, prestatzen direla...

**SUKALDIAK**



Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07





**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Ez zara oso seguru sentituko, zure gizalegea apurtu duzula bait dirudi. Ez hartu erabakirik aurretik ondo pentsatu barik beraz. Familiartekoen jarrerak ez zaitzala nahigabetu. Maitasuna faltan izango duzu.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Kontuz ibiltzen ez bazara astea bukatu orduko jota egongo zara. Pentsamendu negati- boei eusteak badakizu zertara zaramatzen, kontuz beraz.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Eritziak ematen baino ez zaitetz saiatu, inposatzeak ez zaitu eramango ezertara. Ikas- teak gizalegea sendotzen du, ezizu inoiz laga. Laguna eta bion arteko maitasuna berpizten saitu beharko zenuke.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Independientea sentitzen bazara ere, ezin izango duzu inor gabe bizi, beraz azaldu ezazu besteengandik bereizten zaituen maitagarritasun hori eta lagun koadrila bat osatzen saiatu. Familiak eragozpenak jartzen jarraituko du.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Aste honetan denek zugana joko dute. Zor- tea zure alde daukazu zuhur jokatzeko baduzu, ez harrotu beraz. Jo eta ke ari zara lan berri horretan eta nekatuta sentitzen. Aysedena komeni zaizu.



**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Baliteke egunek aurrera egin ahal larriz- ten joatea negozio berri hori dela eta, baina asmatu egin duzula ere konturatuko zara eteki- nak uste baino lehen ikusiko dituzulako. Maita- sun arloan gorabehera ugari izango da.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Ideiak eta emozioak ez dira bat etorriko, izan zaitetz jatorra zeurekin behintzat. Konbi- bentzia nekeza egingo zaizu, besteak zeure erara erabili nahi izango dituzulako; hori ezi- nezkoa da Gemini.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Ezizu tun-tunian berbarik bota, pentsatu beharra izaten da ahoa zabaldu aurretik. Bizi- modu emozionalean gorabehera ugari izan duzu aspaldian eta puntakokeriak ebitatzea komeni zaizu.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Anabasa ugari dago langiroan; adikorra izanez eta garbi hitz eginda baino ez duzu konponduko. Zorte onari itxaron egiten zaio, lanean ere berdin.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Ez zaitetz nahigabetu edozein egoera dela eta, aldakorak dira egoerak eta gainera ez dute pena merezi. Zure ekonomia zaindu beharrean zaude, ezizu alperriko gasturik egin. Iragana joana da, ezizu negarrik egin.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Burura datorrizuz guztia gauzatu ahal izango duzu aste honetan, intuizioa bizi-bizi daukazulako. Gehiegikeriak jota utz zaitzake. Maitasuna punta-puntan daukazu, aprobetxatu dena eman eta hartzeko.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ez zara umoreko egongo eta edozein komentario dela eta lur jota gelditzeko arriskua izango duzu. Inork aintzat ez zaituela hartu uste izango duzu, gezurra galanta.

**Informatuta  
egon zaitetz!**

## AUTOBIA: zein da proiekturik onena?

### BIDEO EMANALDIA:

- ▶ Andoain-Irurtzun autobia proiektua.
- ▶ Lurraldea alternatiba.

Ordoren debatea

Urriak 18, OSTEKUNA  
Arratsaldeko 7etan  
Monterronen





Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien  
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA  
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS  
MUNICIPAL



# EMAN BOTUA PNV-RI



Aurrerabidezko Euskadiren eraikuntza  
euskotar guztion ardura da.

Gure ekonomiaren eta kulturaren garapena, guztiarentzat  
ongi izatea nagusi izango den Euskadiren eraikuntza:

haxe dugu gure etorkizunerako erronka.

Horrela, Eusko Legebiltzarretik eta Eusko Jaurlaritzatik,

EAJ-PNV-k et Jose Antonio Ardantza

Lehendakariak orain arte bezala lanean tinko

eta sendo jarraituko dute.

Denon artean, gure gizartea Europan dagokigun

egitekoa betetzeko modukoa egingo dugu.

Geurea Euskadi delako.



**GUREA EUSKADI DELAKO**